# Gaztelu pide al Ayuntamiento de Ermua apoyo para unir al alumnado en un único centro

**El concejal de Educación aclaró que están a la espera de la creación del Gobierno vasco y Bildu solicitó una comisión de seguimiento**

:: AINHOA LASUEN

**ERMUA.** La AMPA Gaztelu solicita al Ayuntamiento que se implique en la solución de la situación actual que divide al alumnado en cuatro centros diferentes.

Bildu de Ermua presentó para su debate en Comisión Informativa la solicitud de la Asociación de Madres y Padres del centro de Secundaria IES Ermua BHI para que el Ayuntamiento de Ermua muestre «su apoyo para la unificación en un único edificio».

En la actualidad, el alumnado de este centro utiliza 4 edificios. Los estudiantes de Bachillerato se encuentra en el edificio Errabe, el alumnado de primero y segundo de ESO recibe clases en el edificio que comparte con Primaria de Ongarai Eskola y el de tercero y cuarto de ESO comparte edificio con el alumnado de Primaria de la ikastola Anaitasuna. Además todo el alumnado de ESO acude al edificio de Gure-Etxea para ciertas clases.

La AMPA Gaztelu, surgida de la unión de los 2 centros públicos de secundaria de Ermua, explica que «dimos luz verde al proyecto de fusión de ambos centros con el anhelo de completar la oferta pública de educación en Ermua, con un único centro que garantizara una enseñanza de calidad y teniendo el uso del euskera como referencia en nuestro municipio». Insisten en que «uno de los pilares básicos era una unificacion no sólo administrativa, sino también física».

La AMPA defiende que el éxito del proyecto para su alumnado «es que comparta edificio para optimizar recursos, profesorado sin desplazamientos, laboratorios y espacios deportivos , entre otros, y esto fisicamente sólo es posible en el edificio Errabe donde actualmente se imparte Bachiller».

Esta asociación aclara que en una reunión mantenida en septiembre con la delegación de Educación «se dejó el mensaje de que el Bachiller de Ermua está de 'prestado'en Errabe y que nunca tendrá prioridad para su utilización, ya que la prioridad es la Formación Profesional». Por este motivo, desde la AMPA solicitan al Ayuntamiento de Ermua que aclare esta situación, porque creen que «para el curso que viene la matriculación puede verse afectada si dos años después de su aprobación el proyecto no cuenta con garantías de futuro».

El concejal de Educación, José Luis Araujo, aclaró que la reunión, que ya han solicitado a la delegación de Educación, está a la espera de que se configure el nuevo Gobierno vasco.

Bildu solicitó además la creación de una comisión de seguimiento que gestione las relaciones con la delegación de Educación para garantizar el correcto funcionamiento del centro IES Ermua BHI.


Visita anterior realizada por madres y padres al centro de enseñanza ermuarra. :: A. LASUEN

## Una furgoneta se encaja contra el frontón Arizmedi

:: A. LASUEN

**ERMUA.** Un vehículo de reparto del BM se precipitó el pasado miércoles contra la pared lateral del frontón Arizmendi, sin causar daños personales. Alrededor de las 19.30 horas un vecino llamó a la Policía Municipal para alertar sobre un vehículo que se había precipitado contra el frontón municipal.

Cuando los agentes acudieron al lugar certificaron que un vehículo de reparto del Supermercado BM se encontraba encajonado contra la pared lateral del Arizmendi, en la zona baja de las escaleras.

Esta patrulla certificó, según declaraciones de su conductor, que el vehículo se encontraba en el estacionamiento del BM y «en un descuido» no puso el freno de mano y éste se precipitó sin conductor contra el frontón Arizmendi. Como consecuencia se produjeron distintos daños en mobiliario urbano (un pivote y dos vallas), pero sin ningún daño personal.


Vehículo siniestrado. :: A. L.

El vehículo permaneció en este lugar hasta ser retirado ayer por la grúa e inmediatamente se procedió a reparar las vallas y pivotes dañados por el siniestro, ya que se trata de un lugar de paseo de muchas personas.

## EN BREVE

### Festival de Santa Cecilia en Ermua Antzokia

**22.15 HORAS**

:: Txindurri Txistu eta Dantza Taldea y la Escuela de Música Alboka celebrarán hoy el festival de Santa Cecilia en el Ermua Antzokia, a partir de las 22.15horas. Actuarán la banda, grupos de moderno, txistularis y Pispillu Abesbatza. Las actuaciones contarán con el acompañamiento de los dantzaris de Txindurri. La entrada cuesta 3 euros y puede adquirirse en venta anticipada en Lobiano Kulturgunea o de forma online en el portal de Kutxabank o en su red de cajeros multiservicio, o en la misma taquilla antes de comenzar la función.

### Actuación del Mago Sun, mañana

**17.00 HORAS**

:: Mañana, a partir de las 17.00 horas, se contará en el Ermua Antzokia con el espectáculo del mago Sun. Las entradas costarán 5 euros. Este alavés es Premio Nacional de magia, experto en escapes extremos, y levitaciones. Iñaki Ruiz de Galarreta, más conocido por el mago Sun, mostrará mañana de lo que es capaz sobre el escenario del Antzokia. Destaca por la espectacularidad de sus funciones aunque explica que «también hay momentos muy tiernos donde se realiza magia más íntima» y números muy divertidos con la interacción del público infantil.

*EL CORREO no se hace responsable de cambios de última hora

### TELÉFONOS DE INTERÉS

**URGENCIAS**

| | |
|---|---|
| SOS DEIAK | 112 |
| DYA | 943 464 622 |

**HOSPITALES**

| | |
|---|---|
| Hospital Mendaro | 943 032 800 |
| Ambulatorio de Eibar | 943 032 500 |
| Ambulatorio de Eibar (Torrekua) | 943 032 650 |
| Ambulatorio de Ermua | 943 032 630 |

**POLICÍA MUNICIPAL**

| | |
|---|---|
| Eibar | 943 708 424 |
| Ermua | 943 176 300 |

**ERTZAINTZA**

Eibar 943 531 700

**BOMBEROS** Toda la provincia 112

**TRANSPORTES**

| | |
|---|---|
| Euskotren | 902 543 210 |
| Pesa Eibar | 902 101 210 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

**TAXIS**

| | |
|---|---|
| Eibar | 943 203 071 y 943 201 325 |
| Ermua | 943 170 396 |

**AYUNTAMIENTOS**

| | |
|---|---|
| Eibar (Centralita) | 943 708 400 |
| Eibar (Oficina de información a la Ciudadanía. Pegora) | 010 |
| Ermua | 943 176 322 |

### CARTELERA DE CINE

EIBAR

**COLISEO** Merkatu Kalea, 2

**No hay sesión**

ERMUA

**ERMUA ANTZOKIA** Iparragirre s/n

**No hay sesión**

### COMUNICACIONES

AUTOBUSES

**EIBAR-SAN SEBASTIÁN**

Laborables: 6.10*, 6.40*, 7.10*, 7.40, 8.10, 8.45*, 9.15*, de 10.10 a 21.10 cada hora, 13.05*, 18.10*, 19.10*.
Sábados: 6.40*, 7.10*, 8.10, 8.45*, 9.15*, de 10.10 a 17.10 cada hora, 13.15*, 15.10*, 16.10*, 18.10*, 19.10*, 20.10*, 21.30, 23.10.
Festivos: 8.10, 10.10*, 12.10, 13.10, 15.10*, 17.10, 18.10, 19.10* y 21.45*.
*Salida desde Ermua diez minutos antes

**SAN SEBASTIÁN-EIBAR**

Laborables: 6.50, 7.20*, 7.50*, de 8.20 a 14.20 cada hora, 11.20*, 14.30*, 14.50*, 15.20*, 16.20*, 17.20, de 18.20* a 22.20* cada hora.
Sábados: 6.50, 7.20*, 7.50*, de 8.20 a 21.20* cada hora, 11.20*, 14.20*, 16.20*, 17.20*, 18.20*, 19.20*, 22.35* y 00.20.
Domingos y festivos: de 9.20*, 11.20*, 13.20, 14.20*, 16.20*, de 18.20* a 20.20* cada hora, y 22.20*.
*Llegada a Ermua

**EIBAR-BILBAO** (Autopista)

De lunes a sábado: Desde las 6.40 hasta las 20.40 cada hora. Domingos y festivos: Desde las 7.40 hasta las 21.40 cada hora.

**BILBAO-EIBAR** (Autopista)

Laborables: De 6.40 a 21.40 cada media hora.
Sábados-festivos: 7.40 a 21.40 cada media hora.

**EIBAR-VITORIA**

Laborables: De 7.00 a 21.00 cada hora y a las 6.15, 10.15, 14.15 y 18.15.
Festivos: 8.45, 12.45, 16.45, 20.45.

**VITORIA-EIBAR**

Laborables: De 6.30 a 20.30 cada hora y a las 7.15, 8.00, 12.00, 16.00 y 20.00.
Festivos: 10.30, 14.30, 18.30 y 20.30.

**EIBAR-PAMPLONA**

Laborables y festivos: 7.45

**PAMPLONA-EIBAR**

Laborables y festivos: 11.00.

**EIBAR-ARRATE**

Sábados y laborables: 14.00.
Festivos: 9.00, 10.00, 11.00, 13.00 y 18.00.

**ARRATE-EIBAR**

Sábados y laborables: 14.30.
Festivos: 9.30, 10.30, 11.30, 13.30 y 18.30.

**EIBAR-ELGETA**

Laborables: 6.30, 8.30,11.00, 13.30, 15.30, 16.30, 18.30 y 20.30
Festivos: 8.30, 11.30, 13.30, 15.30 y 20.30.

**ELGETA-EIBAR**

Laborables: 6.50, 8.50,11.20, 13.50, 15.50, 16.50, 18.50 y 20.50
Festivos: 8.50, 11.50, 13.50, 15.50 y 20.50.

**EIBAR-HOSPITAL MENDARO**

Lunes a viernes: 6.20, 7.05 (de 7.05 a 22.35 cada media hora).
Sábados: De 7.00 a 21.00 cada hora.
Domingos: de 8.00 a 21.00 cada hora.

**HOSPITAL MENDARO-EIBAR**

Laborables: De 6.45 a 21.15 cada media hora.
Sábados y festivos: De 7.45 a 20.45 cada hora.

TRENES

**BILBAO-EIBAR**

Laborables: 5.57. Diario: (De 6.57 a 20.57 cada hora), 9.34 y 20.34.
Sábado noche: 23.50, 1.50, 3.50 y 5.50.

**EIBAR-BILBAO**

Laborables: 6.13, 7.13. Diario: (De 8.13 a 22.13 cada hora), 10.36 y 21.36. Noches: 2.05, 4.05, 6.05 y 7.29.

**ERMUA-BILBAO**

Laborables: 6.19 y 7.19. Diario: De 8.19 a 21.19 cada hora.

**SAN SEBASTIÁN-EIBAR**

Laborables: 5.47, 6.47. Diario: De 7.47 a 20.47, cada hora, 9.20 y 20.20.

**EIBAR-SAN SEBASTIÁN**

Laborables: 6.13 y 7.13. Diario: De 8.13 a 22.13 cada hora, 10.35 y 21.35.

### FARMACIAS

**EIBAR**

De 9.00 a 22.00: Lekumberri (Isasi, 31).

**ERMUA**

De 9.00 a 22.00: Alves (Avda. Gipuzkoa, 46). De 22.00 a 24.00: Alves (Avda. Gipuzkoa, 46).

**EIBAR-ERMUA**

Noche. De 22.00 a 9.00: Iraundegi (Calbetón, 19).

DEBA

# Los palistas de pelota de goma, a cuartos de final tras acabar primeros en la fase de grupos

## Mañana se jugaran las finales del campeonato de pala femenino

:: ANDER SALEGI

**DEBA.** Después de que la semana pasada no jugaran, regresan los manomanistas debarras para competir en la fase de consolación, también llamado 'campeonato de la zona Oeste'.

Las buenas noticias rodean el apartado de pala, y es que no es para menos dado que las dos parejas de tercera división de pala con pelota de goma jugarán los cuartos de final en su camino hacia la segunda división.

En la modalidad de pala corta de segunda división se encuentra el tándem formado por Beitia y Etxeberria. Esta pareja llega a la última jornada de la fase de grupos con incertidumbre de si jugará la siguiente ronda. Las opciones con las que cuentan son pocas, pero visto que la anterior jornada ganaron (40-31) esta pareja no quiere echar la toalla antes de tiempo y para eso deberán desplazarse hoy a Zubieta para enfrentarse al Pagazpe a partir de las 20.30 horas.

En tercera división de la modalidad de pala con pelota de goma, se encuentran inmersos dos parejas debarras. Por un lado, Badiola y Barinagarrementeria, en la última jornada se desplazaron a Donostia y ganaron (11-25), de esta manera finalizaron primeros de grupo lo que les daba opción a elegir en la siguiente ronda el terreno de juego. Por lo que los debarras han escogido el frontón Aldats para jugar los cuartos de final. El rival será el Soraluze2 y el partido se jugara mañana a las 18.30 horas.

Por otro lado la pareja formada por Esnaola y Aristi gracias al último triunfo (18-25) obtenido en su desplazamiento a Donostia, han quedado primeros de grupo, al igual que sus compañeros de Euskal Jolas, eso les da opción a elegir terreno de juego, y éstos también han escogido el frontón Aldats. El rival al que se enfrentarán es el Lizardi y la hora de comienzo del partido será a partir de las 18.30 horas de mañana sábado.

### Regresan los manistas

Regresan los manomanistas debarras después de una semana de descanso. Los dos primeros de cada grupo se clasificaban para pelear por la txapela, pero el resto se dividían en dos grupos este y oeste para jugar la fase de consolación. En alevín de segundo año, Iban Arrizabalaga jugará contra el Bergara3 mañana en Deba a partir de las 18.30 horas. En infantiles de primer año, tampoco ninguno se ha clasificado para jugar por la txapela, por lo que jugarán en la zona oeste los dieciseisavos. Imanol Salegui se ha visto obligado a retirarse debido a una lesión, por lo que no jugara el partido previsto para mañana. Markel Villa, a pesar de quedar último en la fase de grupos, tendrá otra oportunidad de ganar contra el Aretxabaleta 3 hoy a partir de las 19.00 horas. Manex Prieto, al igual que Villa quedó en último lugar en la fase de grupos, pero ahora contará también con otra oportunidad para clasificarse para octavos de final si gana a Tolosa 10, en el Beotibar mañana a las 16.00 horas. Borja Aires está clasificado para jugar directamente los octavos de final. Unai Goikoetxea es el único manomanista que juega en infantiles de segundo año, y tampoco se clasificó entre los dos primeros, por los que se desplazará hoy a Aretxabaleta para enfrentarse al cuarto equipo de esa localidad, a partir de las 19.00 horas.



Arrizabalaga juega mañana. :: A.S.

### Finales femeninas de pala

La quinta edición del campeonato de pala femenino que comenzó en octubre está llegando a su fin. Ayer se disputaron las semifinales y mañana se jugará la final a partir de las 12.00 horas. Entre las posibles aspirantes al triunfo se encuentran solamente parejas debarras, aunque entre las 20 inscritas al comienzo dos eran de Mutriku, cuatro de Elgoibar y una de Zarautz.

ERMUA

# Magia de la mano del Mago Sun

:: K. ITURRIAGAGOITIA

**ERMUA.** El Alavés Iñaki Ruiz de Galarreta, Premio Nacional de Magia y más conocido como Mago Sun, llega a Ermua Antzokia este sábado, 26 de noviembre, a las 17.00 horas para ofrecer su sorprendente y novedosa pruducción 'Magic Spectacular'. Una puesta en escena para todos los públicos, donde el mago nos introducirá en su gran universo mágico. La entrada cuesta cuatro euros.

Presentará su show más actual y fascinante con apariciones, desapariciones, levitaciones y magia interactiva con el público como protagonista. Un espectáculo con una gran selección musical, cuidada escena y magnífica iluminación, que consigue que volvamos a ilusionarnos y a soñar con lo imposible.

### Instagramer de moda

'Las Tardes de Izarra Centre' traerá hoy viernes a Estíbaliz Prieto influencer e instagramer de prestigio, quien ofrecerá una charla. Estará en el auditorio de Izarra Centro, a las 18.00. La vizcaína es una de las influyentes de moda más importantes, con más de 224.000 seguidores en Instagram. Entrada gratuita

BIZKAIKO HITZA
Ostirala, 2016ko azaroaren 25a

Haurrei amaren sabelean daudenetik hitz egitea, irakurtzea eta kantatzea oso garrantzitsua da. Hala diote adituek: heziketa prozesuan zeresan handia du jardun horrek. Bularretik Mintzora eta Azalerako Ipuinak egitasmoek horretarako tresna ugari eskaintzen dituzte.

# Literatura ereinez, adimena ernatu



**Natalia Salazar Orbe** *Bilbo*

Haurrak kantari aritzen dira berbetan hasi baino lehen. Euren ahotsa baliatuta, erritmoak eta hizkuntza soinuak manipulatzeari ekiten diote, jolasean, oharkabean. Poesia, jolasak eta errepikapenak oso baliagarriak dira haientzat. Horiek lantzen dituztenek lehenago eta errazago ikasten dute hizkuntza. Alor horretan trebatuta dauden adituek hala diote: Bularretik Mintzora programa lantzen duen Galtzagorri elkarteak edo Azalerako Ipuinak irakasten dituen Saroa Bikandik, kasurako. Bi horiekin lanean ari da Abusuko Udal Liburutegia. *Abusu, auzo irakurlea* proiektuaren barruan jorratzen dituzte bataren eta bestearen programak, eta gaztetxoenen irakurzaletasuna bultzatzeko prozesuan auzoko eragile guztiak inplikatzeko lanean dihardute. Proiektu horri esker, Maria Moliner saria irabazi du liburutegiak, laugarren urtez.

Espainiako Kultura Ministerioak ematen du sari hori. 50.000 biztanletik beherako udalerrietako liburutegi publikoek soilik jaso dezakete. Umeen eta gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko egiten duten lana aitortzen die. Bizkaian beste sei liburutegik jaso dute: Basauri, Elorrio, Ermua, Gallarta, Muxika eta Zamudio herrietakoek, hain zuzen ere.

Amaren sabelean dagoenetik hasten dute Abusun umea literaturaren munduan murgiltzeko prozesua. Programa horretan parte hartzen dute anbulatorioak, eskolek, familiek eta liburutegiak. Hala azaldu du Gotzone Butron liburutegiko arduradunak: «Haurdun dagoela anbulatorioan bertan egiten dituen lehen bisitetan azaltzen diote amari zernolako garrantzia duten haur literaturak, umeari irakurtzeak, abesteak eta poesiak. Umearen garapen emozionalean zein gero hizkuntza garatzen hasten den unean oso garrantzitsuak dira».

Itziar Zubizarreta da Bularretik Mintzora egitasmoaren sortzailea. «Haurra, oraindik jaio gabe badago ere, konturatu egiten da noiz hitz egiten den berarekin, eta helduen tonuak ulertzen ditu: jostatzen ari badira, serio badaude eta berarekin ari badira edo ez badira ari. Ahotsaren tonu horiek guztiak ulertu egiten ditu. Hala, oso txikia denetik hizkuntzak eta berarekin komunikatzeak garrantzi handia du haurraren enkaje afektiboan, sozialean eta intelektualean».

Haur literaturak oso ezaugarri aproposak ditu komunikazio hori hobetzeko eta eraginkorrago egiteko: «Batez ere, erritmoaren presentzia du. Erritmo horiek bat datoz haurraren erritmo naturalarekin: alegia, biko erritmoarekin». Mundu osoan erabiltzen da erritmo hori bera jolasetan eta kantuetan. «Sehaska kantuetan zein hitz jolas txikietan, esaterako: *Honek arrautza ekarri, honek olioa*... Erritmo eta frekuentzia jakin batzuk erabiltzen dituzte, eta frekuentzia horiek egokiak eta onak dira ikasteko».

Erritmo horiek haurrengan patroi batzuk sortzen dituzte. «Eta, analogiaz, hizkuntza konposatzen laguntzen diete». Horregatik erabili dira historiaurretik gaur egunera arte. «Sen horri jarraituz, gizakiak jolas eta kantu berak egiten ditu mundu osoan. Horiek denak oso eraginkorrak dira haurrentzat beren lehen harremanak eraikitzeko».

Anbulatorioan egindako gomendioei jarraituta liburutegira jotzen duen gurasoen kopurua ez da oso handia. Hala aitortu du Butronek. «Bide hori oso zaila egiten ari zaigu». Hala ere, badira hurrengo pauso hori ematen dutenak. Saroa Bikandi aurkitzen dute, orduan, Azalerako Ipuinak programa lantzeko. Ume jaioberrietatik hasi eta 3 urtera bitartekoen irakurzaletasuna bultzatzeko tresnak ahalbidetzen dizkie gurasoei.

«Adin horretan umeek elikatzeko beharra dute: janaria behar dute, baina maitasun eta ukitzeko beharra ere badute. Horiez guztiez gain, hizkuntzaren beharra ere badute. Guk haurrek daukaten egarri hori elikatzen badugu, ipuintxoak kontatzen badizkiegu, olerkiak abestu, jolastu... hazia jartzen ari gara, geroko irakurzaletasuna errazteko».

Ahozkotasuna landuta bultzatzen du Bikandik txikienen irakurzaletasuna. «Hitz jokoak, onomatopeiak, errimak, erritmoak» eta antzekoak baliatzen ditu. Aldi berean, albumak edo liburuak erabiltzen ditu, «haur literatura txiki-txikitatik ezagut dezaten, apurka».

Gurasoen parte hartzea nahitaezkoa da 45 minutu irauten duten saio horietan. «Helburua da gurasoak motibatzea ahozkotasuna eta haur literatura lantzeko prozesu horretan». Haurrak horren txikiak izanik, masajeak ere tresna aproposa dira. Horien bitartez ipuinak kontatzen dizkiete, eta abestu edo jolastu egiten dute.

Liburu sinpleak aukeratzen ditu gurasoekin batera haurrak erakartzeko. «Adin tarte horretarako proposatzen direnak erabiltzen ditut: poemak dauzkatenak, hitz jolasak eta oso egitura zehatza eta erraza dutenak. Esaterako, gehikuntza egitura dutenak». Oso eskema sinplea dute ipuin horiek. Arazo bat suertatzen da. Esaterako: animalia batek ilargia harrapatu nahi du, baina ezin du. Beste bati deitzen dio. Badator. Ahalegintzen da, baina horrek ere ez du lortzen. Beste bati deitzen dio, gero beste bati. Eta, azkenean, azkenak lortzen du harrapatzea. «*Gehiketa egiturazkoak* esaten zaie umeek badakitelako zer gertatuko den. Eta horrek segurtasuna ematen die. Bigarren pasarterako ulertua dute egitura».

**«Jolasak eta kantuak oso eraginkorrak dira haurrentzat lehen harremanak eraikitzeko»**

**Itziar Zubizarreta**
Bularretik Mintzora-ren sortzailea

**«Euren hizkuntza elikatzen badugu, irakurtzen hasten direnean baliabideak izango dituzte»**

**Saroa Bikandi**
Azalerako Ipuinak

**«Haurdun dagoela azaltzen diote amari zer nolako garrantzia duten haur literaturak, abesteak eta poesiak»**

**Gotzone Butron**
Abusuko liburutegiko arduraduna

## Gurasoek gozatzea

Garrantzitsuena da gurasoek gozatzea haurtxoei ipuinak kontatzen dizkieten bitartean. «Inportantea da kontatzen duten hori gustuko izatea». Gurasoaren transmisio horrek eragin zuzena du-eta haurrarengan.

Sei urte daramatza Saroa Bikandik Azalerako Ipuinak programa lantzen. Urte horietan guztietan nabari du aldea dagoela gurasoek irakurzaletasuna landu duten umeengan eta hala egin ez dutenengan. «Euren hizkuntza elikatzen badugu, deskodetzen



Maria Moliner saria eman diote Abusuko Udal Liburutegiari haurren irakurzaletasuna bultzatzeko darabiltzaten programengatik. ABUSUKO UDAL LIBURUTEGIA

hasten direnean, alegia, irakurtzen hastea egokitzen zaienean, baliabideak izango dituzte; elikatua izango dute atal hori». Beraz, erraz ulertuko dute irakurtzen dutena.

Horren haritik, umeengan identifikatuta dagoen arazo bati buruz mintzatu da: irakurtzen jakin bai, baina irakurritakoa ulertzea zail samarra egiten zaienen arazoa. «Kasu horietan, zakua ez dute izaten betea. Beraz, zailagoa gertatzen zaie».

Azalerako Ipuinei ikastetxea, etxea eta liburutegia lotzen dituen jarduerak hartzen die lekukoa Abusun: Motxila Ibiltariak. Zamakola ikastetxeko eta Abusu ikastolako Haur Hezkuntzako ikasgela bakoitzean motxila txiki bat dute. Astero, ikaskide batek hartzen du haren ardura, eta gurasoekin batera liburutegira joaten da, gustuko duen liburu bat aukeratzera. Bizpahiru egunetan etxean irakurri eta aztertzen du umeak, familiarekin batera. Ostean, ikasgelara eraman behar du. Astebetez egongo da han, liburu gonbidatu bezala. Denbora hori bukatuta, beste ikaskide batek itzuliko du liburutegira, eta prozesu berari emango dio jarraipena.

Bularretik Mintzora egitasmoaren barruan dago programa, eta, horren bidez, irakurketa ohiturak lantzen dituzte. Euskaraz egindako 300 libururen zerrenda bat bermatzen du, batetik. «Bestalde, bermatzen dugu ikastetxeetan astero liburu on bat sartzen dela kontatzeko, begiratzeko, komentatzeko edo besterako. Eta haur horien etxeetan ere, bi hilean behin, liburu on bat sartzen da». Hala azaldu du Zubizarretak. Butronek ere «oso positiboa» deritzo. «Familiaren inplikazioa oso garrantzitsua da adin horretan. Eta horrek jende asko eta familia berri asko erakarri ditu liburutegira».

Bikandik ere 8 urtera arteko irakurzaletasuna lantzen du Abusun, Liburuen Poltsa irakurketa klubaren bitartez. Beste era batera egiten du berak lanketa hori. «Formatua aldatzen da. Liburu bakoitzetik adierazpen plastiko bat ateratzen dugu». Alegia, eskulantxo bat egiten dute Bikandik irakurritako ipuinaren inguruan.

## Bizkaidatz Txikian izena eman daiteke

Bizkaidatz Txikia haur eta gazteentzako literatura sariketan izena emateko epea zabaldu dute. Edozein ikastetxetako haur eta gazteek aurkez ditzakete lanak otsailaren 17ra bitartean.

Bi idazlek proposatutako bi istorioren hasieraren jarraipena izango den kontakizun bat idatzi beharko dute. Bata euskaraz izango da, eta bestea, gazteleraz.

Haurren kategorian, Haur Hezkuntzako hiru, lau, bost eta seigarren mailakoak lehia daitezke. Gazteen kategorian, Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailatik laugarrenera bitarteko ikasleak ari daitezke.

Dagoen bibliografia askotarikoa ezagutzeko modu bat ere bada. Izan ere, familia bakoitzak hilean liburuz betetako poltsa bat eramaten du etxera. «Bueltan ekartzen dutenean, irakurritakoari buruz hitz egiten dugu». Hala, familiek beti izango dute liburuen bat umeei irakurtzeko. «Gainerakoan, hankamotz gaude. Helburua da baliabide asko izatea».

Programa batean eta bestean lantzen dituen zenbait libururen berri eman du. Azalerako Ipuinak atalean, *Ilargia*, *Txomin txitatxoa* eta *Esku jokoak* gomendatu ditu, besteak beste. Liburu Poltsari dagokionez, *Igeritz*, *Ez da munduan min handiagoa ematen duenik* eta *Kezkaxumelak* aipatu ditu.

Bularretik Mintzora egitasmoak irakurzaletasuna bultzatzeko saiakeroi buruzko datu kualitatibo eta kuantitatiboak bildu ditu. Lehenengoei buruzko ondorioak laster kaleratuko dituzte. Egitasmoak hizkuntzaren ulermen estrategietan eta garapen emozionalean duen eragina aztertu dute.

### Abusu Sarean

Liburutegia ez ezik, auzo guztia eta bertako eragile guztiak inplikatu nahi dituzte Abusun. Butronek argi du: «Irakurzaletasuna sustatzeko lan hori ez dugu utzi nahi soilik liburutegiaren eta ikastetxeen eskuetan». Besteak beste, kartelak egin dituzte. Horietan, auzoko bizilagunak irakurtzen ageri dira, Abusu «auzo irakurle bat» den adierazgarri.

Asmoa argia da: «Gainerakoan haurrek edo gazteek jasotzen duten mezua da ikastetxeetan eta liburutegian agintzen dietela irakurtzeko. Guk zabaldu nahi duguna da irakurtzea sekulakoa dela».




Besteak beste, tailerrak baliatuta ezagutarazten dituzte liburuak. A. Z. MEDIATEKA

Jaioberrietatik 6 urte arteko haurren artean irakurzaletasuna sustatu eta artean murgiltzeko programa lantzen dute astebururo, Bilboko Azkuna zentroan: Kontu Kontari.

# Ate bat artera eta literaturara

**N. S. O.** *Bilbo*

Hainbat herritan jabetu dira irakurzaletasuna txikitatik lantzeak duen garrantziaz. Hala, hura sustatzeko jarduerak antolatzen dituzte. Bilbon, Kontu Kontari programa darabilte martxan. Jaioberriak direnetik hasi eta 6 urtera bitarteko umeei liburuek eta literaturak eskaintzen dituzten mundu bitxi eta berezietarako leihoak zabaltzen dizkiete. Azkuna zentroko Mediatekan ari da Panpotx kultur taldea eginbehar horretan. Martxora bitartean, astebururo izango dira hainbat saio.

Arte garaikidearen eta irakurketaren interesa eta jakin-mina pizteko saiakera horretan, jarduera asko eskaintzen dizkiete txikienei. Hala azaldu du Cristina Arana bertako teknikariak. «Astebururo gai bat planteatzen dugu, eta horren inguruko lanketa egiten da. Giro lasaia baliatuta, horretaz hitz egiten da, tailer bat gauzatu edo jardueraren bat eginez».

Azkuna zentroko atari nagusian dagoen askotariko ekintzetarako aretoan elkartzen dira zapatu eta domeka oro —asteongoak salbu—, 17:30etik 19:30era bitartean. «Mediatekako liburuak eramaten ditugu. Aretoa girotu eta hasten gara».

Hilean behin ipuin kontalari bat izaten dute. «Horrek jende ugari erakartzen du beti. Aretoa txiki geratzen zaigu».

Euskara eta bertako ohiturak sustatzeko tresna gisa ere baliatzen dituzte jarduerok. «Saiatzen gara gure testuinguruan kokatzen: euskal literaturarekin, gure ohiturekin, gure kantuekin lotzen». Animaliak, piratak, Gabonak, ohiturak... Asteburu edo garai bakoitzean, gai bati lotuta egoten da Kontu Kontari. «Piraten asteburua iristen denean, esaterako, haurrei margotzeko fitxa batzuk emango dizkiegu; eta beste batzuk, margotu eta idazteko. Hieroglifiko itxura izango dute, eta, pirata azkarren gisan, ebatzi egin beharko dituzte».

Tailerrak eta bestelako jarduera guztiak liburuen inguruan egiten dituzte. Ohiko liburuak ez diren asko erabiltzen dituzte, gainera: errealitate areagotua dutenak zein antzerki itxura hartzen duten *kamishibai* teknika darabiltenak, besteak beste.

Oso programa irekia jorratzen dute. «Umeak lasai asko egotea da sekretua; eta xedea, erdi jolas gisa planteatzen diren saiootan gurasoekin batera irakurtzea».

Gabonetara begira erakusketa handi bat iragarri dute: *Uhartearen altxorra*. «Umeen eta gazteen euskal literaturaren inguruan egiten den lehena».